

Aste Santuetako Gurutzbidea egingo da gaur goizean Santa Barbarara

■ 08:30etan aterata egingo dituzte 14 estazioak ■ Arratsaldean, Pasio ospakizuna.



Hernaniarrak Gurutzbidean iaz, Santa Barbarara igotzen. (Argazkia: Biyok)

URTERO bezala, Santa Barbarara egingo den Gurutzbidea izango da Ostiral Santu honetako lehen ekitaldi liturgikoa. Fededunak gurutzea buru dutela aterako dira goizeko 08:30etan; eta egun huetan herria ia hutsik geldituagatik, aurten ere Gurutzbidean jendetza bilduko da.

Arratsaldean, berriz, Pasio ospakizuna izango da herriko hiru parrokia eta San Agustin elizan.

IGANDETIK IGANDERA
Aste Santuetako ekitaldi liturgikoak aurreko igandean hasi ziren, Erramua bedeinkapenarekin. Astearte eta asteazkenean Elkarte penitentzia izan zen eta Jaunaren Afaria ospatu zuten.

Aitortu nahi duenak: San Juan Bataiatzailea parrokian larunbatean, 18:00-19:00. □

ASTE SANTUKO OSPAIZUNAK

OSTIRAL SANTUA	ORDUA
Gurutzbidea Santa Barbarara San Jose Langilea parrokian San Agustin elizan	08:30etan 10:00etan 11:30etan
PASIO OSPAIZUNA San Agustin elizan San Antonio parrokian San Juan Bataiatzailea parrokian San Jose Langilea parrokian	16:30etan 17:00etan 18:30etan 19:00etan
LARUNBAT SANTUA PAZKO BIJILIA San Antonio parrokian San Jose Langilea parrokian San Juan Bataiatzailea parrokian San Agustin elizan	19:00etan 20:00etan 20:00etan 23:00etan
PAZKO IGANDEA MEZA NAGUSIA San Antonio parrokian San Jose Langilea parrokian San Juan Bataiatzailea parrokian	10:30etan 11:00etan 12:00etan

Hernanin aurten ez da Aberri Eguneko ekitaldi bateraturik egingo

- Batzuk udaletxe aurrean egingo dute ekitaldia
- Besteak Gernikako ekitaldira joango dira.

‘BI Udalbiltzek’ ekitaldi banatuak egingo dituzte igandean. Hernanin Gudarien plazan egingo da Aberri Eguneko ekitaldia *Udalbiltzako Batzorde Eragileak* deituta. 12:00etan hasita, txalapartariak, trikitila-

riak, bertsolariak, dantzariak eta abeslariak izango dira.

Udalbiltzako zuzendari-tzak Gernikan egingo du ekitaldi “sinboliko-politiko” eta Hernaniko EA eta EAJ-ko zinegotziak han izatekoak dira.

■ TXIRRINDULARITZA

Euskal Herriko Itzulia Hernanin, gaur

- Donostialdetik Urnietara joango da ■ Bi alditan pasako da Axalatik: 11:18etan eta 11:54etan.



Euskal Herriko Itzuliak ikusle ugari izaten ditu bazterretan.

EUSKAL Herriko Itzulia bi alditan pasako da gaur Hernanitik. Lekunberritik Lasarterako etapa da gaurkoa, eta txirrindulariek Lasarte-Hernani-Urnieta-Andoain zirkuitoari bi buelta eman beharko dizkiote helmugan sartu aurretik. Mundu mailako izar haundiak

ikusit nahi dituenak Axalako bidegurutzean izango du aukera, ezagutzeko adina beta emanten badio behintzat. Itzulia gaur bukatuko da gainera; goizeko 100 km-ko etaparen ondoren 10 kilometroko erlojupekoa izango baita arratsaldean, Lasarten bertan.

Bihar, larunbata, ez da Kronikarik izango

- Aste Santuko larunbatean, Eguberri eta Urteberri egunean bezala, ez da egunkaririk izaten.

Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziazioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Jatetxea

Venta Berri

Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

Bidaiak

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6
☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxe: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

CATALANA OCCIDENTE

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxe 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI

Hernaniarrak Salou eta Benidorm aldera joan dira oporretara

■ 15 egun jai dituztenak joaten dira urrutiko paraje bila: Cuba, Puerto Rico...



Kotxea Orkolagan, parrilan trasteak jarri eta norahara oporretara joateko pronto.

ASTE Santuetako oporretan herria ia hutsik gelditu da. Nora joan dira ba hernaniarrak? Gehienak Mediterraneo eta Kantauri kostara, *eguzki bila*.

Pirineoetara ere joan da jendea eta Nafarroara bertara edo Galizia muturrera ere, berdin

JOLAS PARKEETARA

Aste Santuko oporretan umeek ere dezente agintzen omen dute eta familia asko jolas parkeetara joaten dira. *Eurodisneyra, Port Aventura* eta *Terra Mitikara*. Orain, gainera, Alikanteko jolas parke hori dago modan, eta denak hara.

EUROPA, AMERIKA...

Egunotan bada hernaniarrak non topatu: Europa erdialdean, Portugalen, Irlandan, New Yorken, Tunezen...

Ajentzia batean honela laburbildu dute gauza: “koadrilak Saloura, familiak Benidormera eta *parejitak* Puerto Ricora”. □

Gero eta gutxiago falta da Txantxilako aparkalekua bukatzeko

■ Brea lana asteartean bukatuko dute ■ Gero, argiak jarri eta pintatzea faltako da.



Txantxilako aparkalekuan brea botatzen joan den asteazkenean.

BETI bukatzekotan eta beti bukatzeko. Baina, eguraldiak utzi ahala, Txantxillako aparkalekua ari dute bukatzen. Langileek berak Kronikari esan diotenez, brea lan guztia datorren asteartean bertan bu-

katuko dute. Hortik aurrera, ekipamendu lanak egitea faltako da.

ARGIAK JARRI, MARRAK PINTATU...

Brea lanak bukatzean, argiak

jarri, marrak pintatu, sarrerak txukundu eta aparkalekua pronto egongo da.

Txantxillak 280 kotxerentzako du lekua eta sarrera bakarra izango du: Aristizabal kaletik barrena. □

ERREMONTTE MASTERRA

Onenak elkarren kontra, Galarretan eta Euskalen

■ Txapelketa berria da ■ Erremontista onenekin osatutako lau bikote arituko dira lehian.

MASTER berriaren aurkezpena asteazkenean egin zuten Galarreta pilotalekuan. Lau bikote onenak arituko dira lehian hilaren 19an hasita.

BIKOTE OREKATUAK

Ezkurra-Urretabizkaia II, Altuna I-Eizagirre, Zeberio II-Iriarte eta Altuna II-Lizaso dira lau bikoteak. Denek denek kontra jokatu dute; bi bikote onenak pasako dira finalera.

BI PARTIDU IRABAZTERA

Finala ez da partidu bakarrean erabakiko. Lehena Euskalen jokatu beharko dute; bigarrena Galarretan. Bana irabazi ezkerro Galarretan jokatu da azkenengoa.

Antolatzaileek txapelketak ikusmin haundia sortuko duela uste dute, mailarik altueneko erremonte jokoa ikusteko aukera izango baita. □

ESKUBALOIA (GIPUZKOAKO KOPA)

Hernani-Bera Bera bihar kiroldegian

■ Larunbatean 18:00etan ■ Kopako lehen partidua da ■ Beste taldeak: Aloña, Elgoibar eta Zarautz.

OKERRAK ZUZEN

■ FUTBOLA -3. MAILA-

Hernanik asteazkenean jokatu du Lemoan

■ Partidua ez zen atzo jokatu, Kronikak hala zioen arren ■ Asteazkenean izango da 19:30etan.

■ PELOTA (2. MAILA, BURUZ-BURU)

Esنال-Otxandorena, igandean Elizondon

■ Etzi jokatu dute, Baztan pilotalekuan, arratsaldeko 17:30etan.

IÑAKI Esnalek partidu gogorra du datorren igandean Elizondoko *Baztan* pilotalekuan. Oiaga botileroarekin izan zen frontoia ikusten, ostegunean, eta Iñaki beraren hitzetan “frontoi polita da, luzea eta frontis azkarrekoa” eta hernaniarrari ondo datorkiona. “Goiko sarea nahiko baju dauka, eta hori ona da niretzat, Otxandorena, airea kentzen saiatuz gero, pelotak gora joateko arriskuan baita” esan digu

Esnalek. Sake errematera jokatzen saiatuko da, peloteoan ahalik eta gutxien sartuta.

Jaialdia osatuko duen partidua Arretxe-Patxi Ruiz / Salaberria-Errandonea.

JOSU OIAGA EUGIN

Josu Oiagak ere partidua du igandean, Nafarroan. Eugin Josu-Mendia Eraondo- Fuerteren kontra neurtuko dira eguerdiko 12:30etan, Udaberri Txapelketaren barruan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalaria anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
►Gauetz: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582

Zure publizitatea
HERNANIKO
KRONIKAn
☎ 943 330899